


Langileen parte-hartzea lan-kooperatiba handien kudeaketan



Ruiz A.(1), Bengoetxea A.(2), Bretos I.(3)

Gizarte ekonomia eta langileen parte hartzea enpresetan (1,2,3), EHU (1,2) eta Universidad de Zaragoza (3)

Zer da Lan-Kooperatiba bat?

Langileak jabe diren eta demokratikoki kudeatzen duten enpresa mota da.

Sarrera

Literatura gehienaren arabera, kooperatibaren tamaina bere sistema demokratikoari bereziki eragiten dion degenerazio iturria da. Aldi berean, tamainak askotan ukaezina den biziraupen-aseguru bat ematen die kooperatiba askori. Mondragon Korporazioko kooperatiba baten kasu-azterketan oinarritu da.

Helburuak

- Kooperatiba handien gobernanta-sistema demokratikoaren ahultasunak identifikatu.
- Tamainak sortutako endekapen demokratikoari irtenbidea emateko oinarriak planteatzen dira.

Metodologia

Kooperatiba baten kudeaketaren parte hartze demokratikoa aztertzeak metodologia kualitatiboa erabiltzea eskatzen du. Hain zuzen ere, gaia hain gutxi aztertu dela kontuan hartuta, kasu-azterketa batetik abiatutako analisi induktiboa da egokiena (Eisenhardt, 1989; Bretos et al., 2018). Horretarako Fagor Arrasate kooperatiba aukeratu da, Mondragon Korporazioko (munduko lan-kooperatiba talde handiena) kide eta biziberritze demokratikoan erreferentzia.


Etorkizunerako norabidea

Azterlan honen mugak kontuan hartuta, haren etorkizuneko garapena da, ezinbestean, sortzen den lehen zereginetako. Horretarako, kasuaren azterketa abangoardiako ezaugarriak dituzten beste kooperatiba handi batzuetara hedatzeaz gain, Fagor Arrasaten bertan sakondu beharko litzateke. Horrek guztiak oinarri gisa balioko luke kooperatiba handien disfuntzio demokratikoak azaldu eta ebatzi ditzakeen teoria bat eraikitzeko.

Bibliografia

- Azkarraga, J. Etxagibel, Cheney, G. and Udaondo, A. (2012). Workers' participation in a globalized market: Reflections on and from mondragon. In M. Atzeni (Ed.), Alternative work organizations (). GB: Palgrave Macmillan. doi:10.1057/9781137029041 Retrieved from <http://www.palgraveconnect.com/doi/10.1057/9781137029041>
- Bretos, I., Errasti, A., y Marcuello, C. (2019). Is there life after degeneration? the organizational life cycle of cooperatives under a 'grow-or-die' dichotomy. *Annals of Public and Cooperative Economics*, doi:10.1111/apce.12258
- Cheney, G., Cruz, I., Peredo, A.M. and Nazareno, E. (2014): Worker cooperatives as an organizational alternative: Challenges, achievements and promise in business governance and ownership. *Organization* 21(5): 591-603.
- Flecha, R. and Ngai, P. (2014): The Challenge for Mondragon: Searching for the Cooperative Values in times of Internationalization. *Organization*, 21: 666-682.
- Heras, I. (2014): The Ties that Bind? Exploring the Basic principles of Worker-Owned Organizations in Practice. *Organization* 21(5): 645-665.

Ikerketaren Muina



Batzarrean: kooperatibako erabaki garrantzitsuenak hartzen dira. Bazkideek osatzen dute batzarra; horien artean, iraupen mugatuko bazkideak (85), iraupen mugagabekoak (575) eta ez-aktiboak eta birkokatuak (120) bereiz ditzakegu. Bakoitzak boto bat emateko eskubidea du, kooperatibismoaren oinarriak oinarritzkoenetako bat aplikatuz

Tekno-egitura: erakundearen alde tekniko-administratiboa. Gerentziak, zuzendaritza kontseiluak eta erdi-mailako agintariak osatzen dute, besteak beste. Kontseilu errektorea izango da gerentea aukeratu duen organoa, Mondragon Korporazioak proposatu ohi dituen hainbat hautagaitzen artean. Honek zuzendaritza kontseiluko kideak izendatuko ditu eta horiek erdi-mailako agintariak izendatuko dituzte.

Giza-egitura: ordezkaritza, kudeaketa, kontrola eta gobernanta funtzioez arduratzen da hau. Eginkizun horietako bakoitza gauzatzeko gai diren hainbat organoz osatuta dago:

Kontseilu errektorea kooperatibaren gobernu, administrazio eta ordezkaritza organoa da. Kontseilariak eta lehendakaria batzar nagusiak aukeratu ditu zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez.

Sozietate kontseilua kontseilu errektorea aholkulatzen du eta funtsezko eginkizuna betetzen du informazioaren transmisioan. Azken hau nabarmenki hobetu da nukleo-kontseilu direlakoen sorrerarekin. Hauek, lan-gune bakoitzeko langileak eta haiek aukeratuakordez kari bat osatutako foro txikiak dira. Azken horrek taldea ordezkatzeko du aipatutako sozietate-kontseiluan. Ordezkariekin batera, lehendakariak eta gerenteak osatuko dute sozietate-kontseilua. Nukleo kontseiluak eta sozietate-kontseilua teorikoki hilerio biltzen dira. Lehenengoaren tamaina txikia konfiantza-giro pertsonala sortzeko eta langileek bere iritzia erraz adierazteko aukera izan dezaten pentsatuta daude.



Jaso artikulu osoa

Ondorioak

1

Arreta berezia jarri behar zaio nukleo kontseiluei, organo zentralak baitira informazioaren transmisioan. Antzeman dira Fagor Arrasateren berrikuntzaren emaitzak, kontseilariari eginkizun dinamizatzailea emateari dagokionez. Hala ere, sistema hobetzeko lanean jarraitzeko beharra ikusi da, eta informazioa modu kualitatiboago batean maneiatzea izan daiteke lehenengo pausu interesgarri bat.

2

Lanaren antolaketa demokratizatzea da lan-kooperatiba handien erronka nagusietako bat. Ildo horretan, nukleo kontseilua sistema hori egituratzeko ardatz posible gisa hartzea proposatzen da, eta, horrela, antolaketa orokorrean zeregin garrantzitsuagoa izatea. Azpimarratu behar da ere ezinbestekoa dela hezkuntza kooperatiboa sistematizatzea eta kooperatibako kide guztiei zabaltzea.

Alde batetik eskerrak eman nahi dizkiot Aitor Bengoetxea eta Ignacio Bretosi, haien laguntzarik gabe ezin izango nuke honelako lan hau egin. Bestetik, eskerrak eman nahi dizkiot ere Fagor Arrasateko elkarlanketatutako kideei, arazorik gabe zabaldu baitzidaten haien etxeko atea pandemiako momentu latzenetan. Azkenik eskerrak Maialen Bilbaori bere laguntzagatik.